



MOZIOA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAREN 435/2023 EPAIAREN AURREAN

Legazpin, 2023ko urriaren 25ean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak eman berri duen epaia dela eta. Epaia horrek 179/2019 Dekretuaren zati bat baliogabetu du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean (ETEL) aitortutako euskararen erabilera instituzionala eta administratiboa garatzeko. Ondorioz, honako hau adierazten dugu:

1.- Aurretik, Konstituzio Auzitegiaren epaian egin bezala, Legazpiko Udalak berretsi egin du ETELEN defentsa, udal-autonomiaren eta toki-erakundeen eskumenen bermatzaile gisa, zehazki, euskararen esparruan. Legea ezinbestekoa da euskal udalek euskararekiko duten konpromisoa eta euskal udalerrietan euskararen erabileraren sustapena gauzatzeko, herritarrekin duten hurbiltasunetik abiatuta.

2.- Legazpiko Udalak uste du epai berri hori **toki-autonomiaren aurkakoa dela**, eta hizkuntza arloko udal-eskumenen garapen osoa mugatzen duela.

Legazpiko Udalak bereziki larritzat jotzen du euskara erabilera normal eta orokorreko zerbitzu- eta lan-hizkuntza dela aintzat jotzen duten dekretuaren artikulua baliogabetzea. Funtsezko beste artikulua batzuk ere deuseztatzen dira, hala nola, kontratazio publikoan euskara baloratzeko aukera ematen dutenak edo udal-jarduerak euskaraz egin ahal izateko hizkuntza-plangintza ahalbidetzen dutenak. Alderdi horiek eta beste batzuk funtsezkoak dira herritarrek beren hurbileko administrazioarekin harremanetan jartzeko hizkuntza ofiziala aukeratzeko duten eskubidea bermatzeko.

3.- Udalek hizkuntza ofizialak ahoz eta idatziz erabiltzeko irizpideak ezin ezartzea, ez barneko ezta kanpoko mailan ere, oztopo da toki-erakundeen funtzionamenduan eta, are kezagarriagoa, euskal herritarrei ematen dizkieten zerbitzuetan euskararen erabilera normalizatzeko. Kaltetuenak euskara gehien erabiltzen den eta ohiko hizkuntza den udalerrietako herritarrak dira.

4.- Adostasun politiko eta instituzionalak eta euskal gizartearen elkarlanak, euskal hiztunen komunitatearen bultzada borondateagatik, euskararen bizitasuna indartzea ahalbidetu du gure herri eta hirietan. Legazpiko Udalak egungo egoera balioan jartzen du, estatuan eta Europan hizkuntza koofizialen erabilera errazteko urratsak egiten ari baitira, eta, hori horrela, guztion artean eraikitzen joan den legeriaren bidez, hizkuntza-eskubideen garapenean aurrera egiten jarraitzeko erronka eta aukera baita.

5.- Legazpiko Udalak Kontseiluaren aldarrikapenarekin bat egiten du eta epaiaren aurka azaroaren 4an egingo den manifestazioan parte hartzera animatzen ditu Legazpiko herritar guztiak.



MOZIOA

**GAIA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAREN 435/2023
EPAIAREN AURREAN**

**PROPOSATU DUTENAK: EAJ-PNV, LEGAZPIKO EH BILDU, LEGAZPIKO
BERDEAK**

OSOKO BILKURA: 2023/10/26

BOZKETAREN EMAITZA:

- ALDE: 11 (EAJ-PNV, LEGAZPIKO EH BILDU ETA LEGAZPIKO BERDEAK).**
- AURKA:**
- ABSTENTZIOAK:**

EUSKAL SOZIALISTAK EZ DU PARTE HARTU BOZKETAN